

Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko irailak 10 / III. urtea / 92. zenbakia

Amen eta omen



AINGERU EPALTZA

Baina... farra hau nork pagatuko du?». Pasarte batean hala galdetzen du bere baitan 'Las Pirañas', Sanchez Ostizen nobelaren pertsonaia nagusiak, jaki eta edari goxo eta garestiz kaskezurretaraino betea dagoen mahaiaren ikuskizunak txunditua. Delako pertsonaia ere piraña izan, baina, eta dudak instant bat baizik ez du irauen, hain juxtu ere, gainerako bazkaltiarren gisara, mahai oparoari bi eskuz ekiteko behar duen denbora.

Lehen egunean Santiagora Foru Gobernuak bidali zuen kadriela alegerak ez bide zuen gisa bereko ezpauinerik izan. Ederki zekiten nor zen petxeroa. Gure patrikak zimur egonen dira, beharbada, baina denen aurrekontuak horretarako eta gehiagotarako ere ematen du, Nafarroaren irudia —a zer irudia!— jokoan dagoenean.

Sevillako Expokoaren ondotik zalantza izpirik gelditzen bazitzaigun, aurtengo mugida gailegoak begiak ireki dizkigu: ez arte, ez kultura, ez jakintza, ez ohitura, ez edertasun naturalik eta are guttiago hizkuntza; lurralde honek duen ezaugarriarik esprotagarriena juergazaletasuna dugu. Voltaire-ri euskaldunez ari zeneko hartan arrazoia eman diote hein batean, baita haren errana bolobildu ere: nafar ona Pirinioko alde honetan dantzan, kantan eta —sanoi, bistan da— zurrutean ari izan den hori gertatu zaigu.

Hortik farrak diruz laguntzera pauso bat baizik ez zen eta orain eman berri digute. Idazle, kazetari, historiagile eta artetile subentzionatua jadanik asmatu baldin bazen, zertako ez juergazale subentzionatua, hori izanik herri honi etekin gehien ekartzen diona?

Luza gabe, gure enbaxariek jota dantzatuko dute Brandenburgoko Arkuaren azpian, riau-riau bat muntatzeko Laponiako errenoen ikusgarri edo, zuriz jauntziak, mozkor arraildurik paseatuko La Mecako karriketan barna. Den-dena, Nafarroari dioten amoreagatik.

Nik ere maite dut herri hau. Antonio Aragoni urtegiak baino gehiago gustatzen zait niri farra. Lotsa zer den ere, aisa ahantz dezaket hartara jarritz gero. Hurrengoan, beraz, oroit zaitezte nitaz. Dirua, ordea, aurretik nahi dut.

Jauna... farra hau nork pagatuko du?». Pasarte batean hala galdetzen du bere baitan 'Las Pirañas', Sanchez Ostizen nobelaren pertsonaia nagusiak, jaki eta edari goxo eta garestiz kaskezurretaraino betea dagoen mahaiaren ikuskizunak txunditua. Delako pertsonaia ere piraña izan, baina, eta dudak instant bat baizik ez du irauen, hain juxtu ere, gainerako bazkaltiarren gisara, mahai oparoari bi eskuz ekiteko behar duen denbora.



Zelatan

XVI. mendeko zelatarien berri eman du Fontes Linguae Vascomun aldizkariaren azken aleak. Informazioaren arloan teknologia nagusitu den garaian, XVI. mendean eskuz eta euskaraz idatzitako emakume zelatari baten gutunek ikusi dute argia. Modua ezberdina bada, mamia ez da aldatu eta gu-

tun hauek ere, gerra garaian boteretsuek erabiltzen zituzten trikimailuen berri ematen dute. Urtubiko andreak sinatzen ditugutun hauek, bat ezik, 1595 eta 1598 bitarteko Espainia eta Frantziaren arteko gudan, Espainiako Felipe IIaren zelataria izan zen andreak.

Gure aukerak

ERAKUSKETAK

Carles Planell pintorearen erakusketa zabalik dago Iruñeko Aurrezki Kutxa Munizipalak Gotorlekuan duen aretoan. Artista honen lanak irailaren 26a arte izanen dira ikusgai arratsaldeko 19.30etatik 21.00etara lan egunetan, eta 12.30etatik 14.00etara jai egunetan.

'Iruña Artista Gazteak' erakusketa zabalik dago Iruñean, Gotorlekuko armen aretoan, irailaren 12a arte. Bertan, Jose Angel Aierra, Fernando Garcia Ezpeleta eta Itziar Alforja artisten lanak ikus daitezke, arratsaldeko 18.00etatik 20.00etara bitartean.

ANTZERKIA

'Historia de una muñeca abandonada' izeneko antzez-lana eskainiko du asteburu honetan Iruña Pequeño Teatro taldeak, Uitzu eta Oitz herrietan. Antzerki emanaldiak gaueko 22.00etan hasiko dira eta bihar larunbata, hilak 11, Uitzin izanen da, etzi, berriz, Oitzen. Sarrera dohainik izanen da.

'Kiki, Koko eta Moko' antzez-lana eskainiko du bihar, hilak 11, Azkona antzerki taldeak, Allon. Emanaldia arratsaldeko 19.00etan hasiko da eta sarrera, noski, dohainik.

'Zalapartaka' lana aurkeztuko du igandean, irailak 12, Trokolo taldeak Abaurrepean. Emanaldia herriko plazan izanen da, eta eguerdiko 12.00etan hasiko da.

ZINEMA

'El acorazado Potemkin' pelikularekin hasiko da astelehenean, irailak 13, Nafarroako Museoak antolatutako zikloa. Asteartean, 'Tiempos modernos', asteazkenean 'Ciudadano Kane', ostegunean 'Cantando bajo la lluvia' eta ostiralean '2001, una odisea en el espacio' botako dute. 19.30etan izanen dira, eta sarrera libre da.

'Victor o Victoria' izeneko pelikula izanen da ikusgai asteburu honetan Uitzu eta Oitz herrietan. Zinema emanaldiak gaueko 22.00etan hasiko dira, sarrera dohainik delarik. Biher, Uitzin botako dute, eta igandean, Oitzen.

MUSIKA


Ortzi eta Zaldibobo musika folk taldeak arituko dira larunbatean, irailak 11, Ziordiko pilotalekuan, Nafarroa Oinezen elkarteak antolatutarik. Musika emanaldia gaueko 23.00etan hasiko da.

Lanaibartik barna

Lanaibar ezagutzea proposatzen dugu aste honetako ibilbidean, Lokizko mendizerraren pean dauden bost herri hauek: Gastiain, Galbarra, Biloria, Ulibarri eta Narkue. Ibar hau 'zulo' baten modukoa da, inguru guztiak mendia eta mendizerrak diralarik, eta erdian, herriak daude kokaturik. Arabako mugan, erromatarren aztarna ugari aurkitu izan dira bertan, batez ere Gastiainen. Gaur egun, Nafarroako Museoa daude aurkikuntza gehienak.

Ibarrean soro ugari daude, jende gehiena nekazaritza baitu ogibide. Zereala, baratza, denetarik daude, baita larreak ere, mendizerraren inguruetan. Aritzak, pagoak, pinoak, lizarrak eta sahatsak ugari dira inguruko mendiaren, erreka bizen artean. Mendiaren ibiltzeko ere senda politak aurki daitezke, itzal bikainaren pean gainera.

Gure ibilbidea Gastiainen hasten da. Hemendik, Lanaibarra egoaldetik ixten duen mendira igotzen gara, portu batetik barna, Carrascalan. Bide asko har daitezke, baina guk igo eta gero, egoaldera joko dugu, gero eskubi aldera eta ondorengo bidegurutzean ezker aldera. Mendi zeharkatuz, Galbarrako sakana aurkituko dugu. Gurutzatu



eta herrira iritsiko gara. Daoena ikusi eta gero Biloriako bidetik jarraituko dugu.

Lanaibarko soroak eta larreak gurutzatuko ditugu Ulibarriko bidean. Inguruetan, Biloriatik hurbil, ikaztegiak ikus daitezke, ibar honetan aspalditik egin ohi baitira. Lehen mendiak egiten baziren ere, orain herrietatik gertu egiten dituzte, ikatz egileak desagertu badira ere. Zuhaitzak aparte, ikatza egiteko gurbioz izeneko zuhaixka erabiltzen da

Lanaibarren, bertan ugaria baita. Honetaz gain, altzairuak egiteko ere erabilgarria da, ezaugarri onak dituelako.

Ulibarri pasatu eta gero, Narkueko bidea hartuko dugu, ibarra gurutzatuz. Herria ezagutu eta gero, Gastiain aldera doan bidetik jarraituz, San Migueleko baselizia topatuko dugu. Aurretik, Sansoros izeneko sakana ikusiko dugu, berezia oso. Bidegurutze batzuk pasa eta gero, Gastiainera iritsiko gara, ibilbidea amaituz.

ASTEKO PERTSONAIK



Malli Txapar
Orbaiztako alkatea



Jose Maria Garcia
Futbolaria



Alfredo Jaime
Iruñeko alkatea

Azto epaitu zuten Iruñean Malli Txapar Orbaiztako alkatea, armadari Aez laguntzeagatik. Fiskalak sei urteko inhabilitazioa eta 100.000 pezetako isuna eskatu du bere aurka. Akusazioa desobediencia zibillean oinarritu du fiskalak, soldadutzaren gaian aginduak ez dituela bete esanez, hau da, soldadutzara joan behar duten mutilen zerrendak ez dituela jarri, eta ez behin bakarrik. Epaketa ekainerako zegoen iragarrita, baina atzeratu egin zuten aste honetara. Malli Txaparrek esan zuen legedi zaharraren alde ez dutela lanik egingo, udaletxe moduan hartu baitituzte erabakiak, ez berak alkate bezala. Apirilean Manuel Campos Etxarri-Aranazko alkatea epaitu zuten akusazio berarekin, eta epaileak sei urteko inhabilitazioa ezarri zuen bere aurka.

Osasunaren joku maila orain arte eskasa izan bada ere, Ligan jokatu diren bi partidutan, bat Kopakoa, Jose Mari erakutsi duen jokua izan da hoberenetakoa. Real Madriden aurka jokaldi bikainak burutu zituen, baita gol aukeraren bat izan ere. Kopako partiduan ere ongi aritzeaz gain gol bat sartu zuen, taldeari garaipena emanez. Errioxako jokalariek gazte honen jokua, ezin ditu estali Osasunaren akatsak. Inpresio txarra eman zuten Zabazaren jokalariek larunbatean, baloi gehienak galdu egiten zituzten, eta atearen aurrean, kontra izan zuten zortea. Orain, guztiek diote Ziober poloniarrek konponduko dituela huts guztiak, bera etortzerakoan gauzak aldatuko direla, baina jokalariek ezin dituzte mirariak egin. Aldaketa sakonak behar dira.

Xacobeoa dela eta, pasa den asteburuan Sangorantz abiatu ziren Nafarroako agintari, erromes, kazetari eta bestelako batzuk. Hemengo jendea iritsi eta gero zarata, zapi gorriak, kantuak, eta ohiuak nonahi entzun zitezken, eta ez bakarrik egunez. Bestela, galdetu Alfredo Jaime Iruñeko alkateari. Ezaguna da kantuzalea dela, eta horrela konprobatu zuten hango udaltzainek: igande goizaldera kalean gelditu zuten eta komisaldegira eramatekotan izan ziren, Iruñean lanean ari-tutako bi polizia agertu arte. Hauek, alkatea ezagutu eta 'hemen ez da ezer gertatu'. Jaimerekin batera Gobernuako kontseilariak eta beste agintari batzuk ere Sanferminak balira bezala zebiltzan, 'Riau-Riau' a egiteko prest eta guzti. Hobe litzateke Iruñean egingo balute.

AHAZTU GABE!

ANTSOAINGO Aste Kulturala hasiko da gaur, irailak 10, arratsaldeko zortzietan ospatuko den Futbitoko 24 orduko txapelketarekin. Gazte Berriak Patronato Kulturalak antolatutarik, datorren osteguna arte iraunen du, eta egun horietarako ekitaldi ugari antolatu dituzte. Aipagarria da bihar larunbata Kepa Junkera trikitilariak eskainiko duen kontzertua. Gaueko 10.00etan hasiko da eta berarekin batera Imanol Urkizu, Aitor Landeta, Jon Cañaveras, Javier Alzola eta Alberto Rodriguez arituko dira, sekulako taldea osatuz.

Larunbat goizean txirrindula martxa bat izanen da, Ezkabari itzulian hain zuzen, hamaika urtetik gorakoentzat. Igandean, Lesakako Bandaren kontzertua izanen da Euskalerria Plazan, eguerdian. Astelehen arratsaldean Antsoaingo Biltzaileen erakusketa antolatu dute Gazte Berriak taldearen aretoan. Asteartean, dantzak Antsoaingo Eguzki Eder eta Burlatako Larraz taldeekin, eta asteazkenean, berriz, antzerkia. 'Escaramouse' taldeak Robin Hood antzez-lana plazaratuko dute, arratsaldeko 19.00etan hasita. Aste Kulturala ostegunean amaituko da, gaueko 21.00etan dagoen Play Backeko saioaren ostean.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenean 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Astea zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.


ANTZERKI Tailerretan monitore moduan ari den Belen Alvarezekin mintzatuko dira datorren astelehenean, irailak 13, Euskalerria Irratikoei, goizeko magazinean. Iruñeko udalak antolatutako tailer hauei buruz arituko dira. ERA berean, Gazte Kontseiluak antolatu dituen Kanpaldien Jardunaldiak direla eta, Txaro Castañaren arduraduna ere bertan izanen da. Honekin batera, herrietako jaiak, eta bestelako albisteak aztertuko dituzte.

Julian Retegiri omenaldia

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Julian Retegi txapeldun handiak bere jaioterrikoen omenaldia jasoko du heldu den igandean. Eratsungo jaietako azken egunean hain zuzen ere. Goizeko hamaika t'erdietan pilotak ezagutu dituen txapeldunik handienetarikoa omenezko meza egingen dute Eratsunen. Elizaren atarian arkuak egingen diote dantzariak manomanistan hamaika aldiz txapeldun izan den Julian Retegiri, eta mezan haren omenezko bertsoak botako dituzte Lizasok eta Gorrotxategik. Mezaren ostean dantzariak ariko dira, eta jarraian herriko plazarantz abiatuko dira guztiak. Bertan, udalak hainbat opari banatuko ditu. Handienak Julian Retegirentzat izanen dira, baina bere emaztea eta Juan Ignazio Retegi bere osabarentzat ere zerbait izanen da.

Opariak jaso eta gero Julian Retegik Zugarramurditarrek erretako bildotsa daztatzeak aukera izanen du, berarekin bazkalduko duten 210 lagunekin ba-



Julian Retegi jokoan.

tera. Horren ostean pilota partidua izanen da, Retegi anaiak Urzainki, Telletxea eta Retegi IV.aren kontra. Horren ostean dantzaldia eta soinuak izanen da. Omenaldia ospatzea herri guztien burutazioa izan da, Rufino

Mariezkurrena herriko alkateak EGUNKARIARI azaldukoaren arabera. Alkateak pilotari handiarengana omenaldiaren berri ematera joan zenean, honek erantzun xelebrea eman zion. «Merezi al dut ba?». Alkateak merezi

zuela uste zuen eta azkenean konbentzitu egin zuen. «berarekin egon ginen eta herri guztiak omenaldia egin nahi zuela azaldu genion, eta berak 'herriak nahi badu, oso ederki' esan zigun, eta animatu ginen».



BERAko lau gazte Kilimanjaro mendia igotzen saiatuko dira datozen egunotan. Xabier Zubieta, Imanol Larrañaga, Mikel Sainz, eta Luis Mari Pikabea joan den ostiralean ailegatu ziren Keniara. Bertatik igandean telefonoz etxera deitu zuten, eta dirudienez mendia igotzeko beharrezkoak diren baimenen artean baten bat falta zaie. Oztopoa gaindituko dutela azaldu zuten dei berean. Gogoratu beharra dago lau gazteek ihauterietan eta herriko festetan jarritako taberna baten bitartez lortu zutela Keniara joateko behar zuten dirua.

LIZARRAn hainbat ekitaldi kultural izango da hilabete honetan. Almudi kultur elkartearen eskutik. Hamahirutik 17ra antzinako musika zikloa egingo da. Hamarretik 30ra Kultur Etxean 'Tuterako udal kultur altxorra' izeneko erakusketa ikusgai izanen da. Hemeretziatik 'Lizarra, hiri baten ikonografia' izeneko dokumentala ikusteko aukera izanen da. Hogeitabi eta 23an astronomia ikastaroa egingen dute. Azkenik Gustavo de Maeztu aretoan Bartolozzi eta Retamaren margoak ikusgai izanen dira.

FESTAZ FESTA

ZIORDIA

Irailak 10, ostirala.

11.00 Kalejira eta buruhandiak.
12.00 Jubilatuen meza.
12.00 Joselu Anaiak taldearekin dantzaldia.
14.30 Jubilatuen bazkaria.
17.00 Mexikarrak Duo Txapalaren eskutik.
20.30 Kakauxa, gazta eta ardo banaketa.
20.00 Joselu anaiak taldea.
00.00 Joselu anaiak taldea.

Irailak 11, larunbata.

11.00 Kalejira eta buruhandiak.
12.00 Euskal preso politikoez egindako eskularen erakusketa herriko plazan.
13.00 Euskal preso politikoen aldeko poteoa trikitixak alaitua.
12.00 Almen taldearekin dantzaldia.
15.00 Amnistiaren aldeko bazkaria.
17.00 Pilota partiduak.
18.00 Errefuxiatuen aldeko kale animazioa zankoez.
20.00 Preso eta errefuxiatuen aldeko kalejira.
20.00 Almen taldearekin dantzaldia.
20.30 Kakauxa, gazta eta ardo banaketa.
23.00 Zaldibibi eta Ortzit taldeen kontzertua Nafarroa Oinezak antolatua.
00.00 Almen taldearekin dantzaldia.

ZIZUR NAGUSIA

Irailak 10, ostirala.

11.30 Zizurko Erraldoi eta Buruhandi konpartsen aurkezpena Ramon Espartza plazan.
12.00 Txupinazoa.
19.00 Gorpildun zezenenekin gazteendako entzierroa.
19.15 Zizurko gaiteroekin dantzaldia Ramon Espartza plazan.



20.00 Drindots taldearekin dantzaldia.
21.30 Zezensuzkoa.
22.45 Su artifizialak Zaragozana piroteknien eskutik.
01.00 Drindots taldearekin dantzaldia.
04.00 Salda banaketa.

Irailak 11, larunbata.

09.30 Dianak Zizurko gaiteroen eskutik.
10.00 Eskulangintza erakusketa Erreniega parkean.
11.00 Erraldoi eta Buruhandi konpartsen ateraldia.

12.00 Bigantxak.
13.30 Navarrerias taldearekin kontzertua Alde Zaharreko pilotalekuan.
17.00 Ziripot txarangarekin kalejira.
18.00 Herri Kirolak ikastetxean.
18.00 Bigantxak.
19.00 Gorpildun zezenenekin gazteendako entzierroa.
19.15 Zizurko Gaiteroekin dantzaldia Ramon Espartza plazan.
20.00 Ostadar taldearekin dantzaldia.
21.30 Zezensuzkoa.
22.45 Su artifizialak Zaragozana piroteknien eskutik.
01.00 Ostadar taldearekin dantzaldia.
04.30 Salda.

OTSAGI

Irailak 10, ostirala.

14.00 Auzoetako bazkariak.
12.30 Haurrendako parkea plazan.
16.30 Haurrendako parkea plazan.
20.00 Zaraitzu orkestrarekin dantzaldia.
00.00 Zaraitzu orkestrarekin mozorro dantzaldia.

Irailak 11, larunbata.

13.00 Tardetsako dantzak plazan.
17.30 Pilota partidu profesionalak: Nagore-Zezeaga, Urionaguena-Folosa bikotearen kontra.
20.00 Drindots orkestrarekin dantzaldia.
00.00 Drindots taldearekin dantzaldia.

BERIAIN

Irailak 10, ostirala.

12.00 Txupinazoa.
17.00 Txarangarekin 'potea' 18.00 Salsa eritmo ikuskaria.
20.30 Montes Blancos taldearekin dantzaldia.
22.30 Zezensuzkoa.
01.00 Montes Blancos taldearekin dantzaldia.

Irailak 11, larunbata.

09.00 Dianak.
14.00 Kalderete lehiaketa.
15.30 Txaranga bazkal ostea alaitzeko.
18.00 Mariatxiak Larre plazan.
20.30 Montes Blancos taldearekin dantzaldia.
22.30 Zezensuzkoa.
01.00 Montes Blancos taldearekin dantzaldia.
16.30 Salda 'La Guasca' peñaren eskutik.



'ANDOSILLAko herritarrek ke-xu dabilza. Herriko jaiak ospatzen dituzte egunotan, eta alkateak arau berria finkatu du. Horren ondorioz tabernak, halabeharrez, goizeko seietan itxi behar dituzte. Egon badaude herritarren gozamenetako araua hausten saiatu diren tabernariak, baina alkateak Goardia Zibila bidali du behin eta berriz araua beteazteko. Bestalde, herritar askoren ustez jai egitaraua ez da behar bezain mardula, batez ere aurrekontua 12 milioi pezetakoa dela kontuan hartuz. Tabernen ordutegiaren aferari berriro ere helduz, aipatu beharra dago Peralta tabernariak nahiko kontent dabilzala Andosillako alkateak hartutako erabakia medio, haien herrira baitoaz, egunero goizeko seiak aldera, Andosillako festazale guztiak.

IRURTZUNgo Udalak ez dio euskararen ezaguerari inolako garrantzirik emanen idazkari laguntzailea kontratatzeke orduan. UPN eta San Martinen kontrako botoak medio, Udal Bilkurak ez zuen HBren proposamena onartu. Proposamen horrek idazkari laguntzailea kontratatzeke deituko diren oposaketetan euskararen ezaguerari saritu nahi zuen.

EDURNE ELIZONDO / IRUÑA

Principe de Vianak argitaratzen duen 'Fontes Linguae Vasconum' aldizkariaren azken aleak Jose Manuel Floristan Imizkozek aurkitutako XVI. mendeko testuak argitaratu ditu, 1595a eta 1598a bitartekoak. Aurretik, aldizkari honetan argitaratutako garai honetako bost testuekin batera, guztira, hogeitaz eskutitz dira aurkitutakoak. Agiri hauen garrantzia alde askotatik nabarmen daiteke, bai ikuspuntu historikotik, bai euskararen ikuspuntutik, baita gaiaren beraren aldetik ere. Orotara hogeitaz eskutitz, euskaraz idatziak eta XVI. mendekoak direlako garrantzitsuak badira ere, ezin ahaztu daiteke duten gaia, hain zuzen ere, muga arteko zelatarien mugimendua. Imizkozek Simancasko artxibategian aurkitu zituen testu

XVI. mendeko eskutitzak

*Jaxua Jaxateza zure senariac omen zierretat
da denagun berriac haren jaxtearen esudala nie
jaxtearen dituen agun berac archelatic eterray
ziren fatchetaco fatche esanzuten nere adiguide
ingelat haxonen izanes fatchetacout anbat fatche
zerhat berri jaxteazera egera zintzuta iganda
bonhidatou hitox sex ingles berriac naudenan
lasterenic sentizen doxetacac candidata armalas esin
partiton zirenian almirantaren omenia gochibat
descalabaton zizagela eta fatche fatche partidat
fimis ferraco partidataguen zintzela baina gero
hoxertouric almirantaren fatche bala edinezela
fatche dearequin nerat celagun eta daude beracere
esantatouric nolas esen berri fatche agery eta
amianscoric ere deusic agery fatche ecarri zintzuten
berriac haren esone emengo ingleses simetouric
fatchealonara ionandirela den antonie beretoton zena
eragac preso artouhoxela esantidate fatche marchal
fatche de biron omenia nafazun adifenda fatche
dorea nola confas fatche batean fatche fatche fatche
berriac denan esout fatche esin fatche fatche eta
edengun nasa fatche besala berri fatche fatche fatche*

hauek, orain dela urte batzuk, beste zerbaiten bila ari zela. Baina erran bezala, ez dira hauek garai horretako testu bakarrak, Imizkozen aurretik, Eusko Jaur-laritzako emakume bekadun batek egin baitzuen topo lehen bost gutunekin. Ondoren, Floristan Imizkozek gainontzeko hama-bostak aurkitu zituen, Simancasko Artxibategi Orokorren Estatu Ataleko 366. eta 180-181. paper sortetan (Nafarroa eta Gaztelari dagozkienak).

NAFARROAKO HISTORIAREN LEKUKO XVI. mendearen hasieran, 1512. urtean,

hain zuzen ere, Nafarroako erre-
suma bitan zatiturik geratu zen
Espainia eta Frantziaren artean.
Eskutitz hauen garrantzi historiko-
a ulertzeko ezinbestekoa da
garai honetako egoera ezagutzea.
Hain zuzen ere, Frantziako Enri-
que III.ak, hil aurretik, bere on-
dorengo izendatu zuen Nafar-
roako Enrique, Borbongo Anto-
nio dukearen eta Nafarroako
erregina Albreteko Juanaren se-
mea. Bera, eliza erreformatu hu-
gonoteko kide zen eta Frantzian,
aldiz, garai hartan liga katolikoa
zen gidari. Espainiak, noski, hau
ez zuen begi onez ikusten, Felipe
II erregeak bere alaba jarri nahi
baitzuen Frantziako buru, alegia,
bere emaztea Frantziako errege
ohiaren arreba zen eta. Baina Na-
farroako Enriquer, bere sines-
men protestante guztiak alde ba-
tera utzi zituen eta katoliko bi-
hurtu; honela, Frantziako koroa
lortu zuen. Garai hau beraz, bo-
rroka erlijiosoen garaia da. Es-
tatu nazionalaren kontzientzia ez
zen egun batetik bestera sortu eta

Fontes Linguae Vasconum' aldizkariak XVI. mendeko euskaraz idat-
zitako hogeitaz gutun argitaratu ditu bere azken alean, Felipe II Espai-
niako erregeari bere zelatariak bidalitakoak. Espainia eta Frantziaren
arteko guda testuinguru historikotzat izanda, Euskaltzaindiako kide den Jose
Maria Satrustegik «aurkikuntza oso garrantzitsua» dela azaldu dio
EGUNKARIARI.

Erdi Aroko 'errepublika kris-
tauren' ideia bizirik zegoen urte
horietan jende askorengan. Ho-
nela, Espainiako erregeari ez zi-
tzaion zaila egin bere borroka-
rako laguntza aurkitzea.

Egoera horretan, noski, Espai-
niaren eta Frantziaren arteko bo-
rrokak etengabeak izan ziren.
Guda giro horretan Felipe II.ak
zelatariak izan zituen Frantziaren
berri eta baita Ingalaterraren be-
rri ere izateko. Zelatari horien
artean, ezagunenak Urtubiko
andrea, Luxeko jauna eta Garro-
ko jauna izan ziren, besteak be-
ste. Nafarroa, beraz, interes han-
diko gunea zen, Europako inte-
resen muinean zegoen. Testuin-
guru honetan kokatu behar dira,

beraz, 'Fontes Linguae Vasco-
num' aldizkarian ageri diren ze-
latarien gutunak.

Hori jakinda, ukazina da Flo-
ristan Imizkozek aurkitu dituen
gutunen balio historikoa. Hain
testu luzerik eta gai honi buruz-
korik ez zen ordura arte topatu.
Horregatik Nafarroako historia-
rentzat balio handia dute. Hau da,
hain zuzen ere, Euskaltzaindiko
kide den Jose Maria Satrustegik
EGUNKARIARI azaldu diona. Bere
ustez, «gutun hauek balio handia
dute historiaren ikuspuntutik eta
baita euskararen aldetik ere». Berak
erran duenez, «garaitu gintuzten
eta zapaltzaileek idatzi zuten gure
historia». Gutun hauetan, berriz,
garai hartan ger-

tatzen ari ziren gauzak eta ger-
taerak agertzen dira, «ez historia-
lari batek erranak, baizik eta egu-
neroko bizitzan batak besteari
erraten dizkion bezala». Nafar-
roako historiaren aldetik, beraz,
oso aberatsak dira. Satrustegik
ere, «lehen iturritik jasoak» iza-
tea azpimarratu du.

HIZKUNTZAREN ALDETIK GARRANTZITSUAK

Euskara-
ren aldetik
ere, ukaz-
ina da testu hauek duten balio
handia. Berpizkundean gutxi-
neko luzera duten lehen euskal
testuak agertu ziren, Etxepareren
obrak (1545), Leizarragarenak
(1571), Betolazaren katezismoa
(1596). Hala ere, Floristan Imiz-

kozek aurkitutako 1595a eta
1598a bitarteko testu hauek az-
pimarratu beharrekoak dira, le-
henik garaigatik beragatik, eta
bigarrenik, lantzen duten gaia
kontuan hartuz ere, hogeitaz gutun
direlako.

Hogeitaz horietatik, lehenengoa
Luxeko jauna idatzia da, edo
hobeto erranda, berak bere alaba-
ri idaztarazi ziona. Hala ere, ez
omen zekien oso ongi euskaraz,
eta Satrustegiren ustetan, «oso
gaizki idatzia dago». Baina gai-
nontzekoak, Satrustegik nabar-
mendu duenez, «euskaraz oso
ongi zekien eta trebea zen» Ur-
tubiko andreak idatzi zituen.
Euskararen aldetik, ezin erran

Garaitu gintuzten
eta zapaltzaileek
idatzi zuten gure
historia»

daiteke euskalki batean idatzita
daudenik, Satrustegiren hitzetan,
«Urtubiko andrea Ziburun bizi
izan bazen ere, jatorriz Hegoal-
dekoa baitzen».

Zelatari lanean ibiltzen ziren
hauek, Nafarroako nobleziako
kide ziren. Nafarroako lurraldea
zaitzean, Espainiako erregearen
alde jarri zirenak. Lurraldea zai-
tzean, Nafarroako gizartea dese-
ginda geratu zen, «famiak eta
odol loturak ere zatikatu ziren
lurraldearekin batera», Satruste-
giren hitzetan; eta egoera hone-
tan, batzuk Espainiaren alde eta
beste batzuk frantziaren alde
agertu ziren. Zatiketa hau ere,
Urtubiko andrearen etxean ber-
tan ere gertatu zen, bera Felipe
II.aren zelataria zen eta bere se-
mea Baionako gobernadoreak
muga guztien zaindaria nagusia
izendatu zuen.

Zelatari hauek Juan Velazquez
Gipuzkoako gobernadore nagusi-
ari bidaltzen zizkieten mezuak,
Hondarribian bizi zena. Hau kon-
tuan hartuta, Jose Maria Satrus-
tegik, «normaltaz» jotzen du gu-
tun hauek euskaraz izatea, «ber-
tako jendeak idatzi baitzituen, eta
hauek euskaraz aritzen ziren». Er-
regearen esku, noski, itzuli on-
doren ailegaten ziren, bere buru
militarren bitartez.

Floristan Imizkozek, beraz,
Nafarroarentzat balio handikoa
den aurkikuntza atera du argira,
Satrustegik erran duenez. Ikus-
puntu historikotik hasita, gutun
hauen bidez, orain arte ezezaguna
zen gai baten berri izan da. Bestalde,
hizkuntzaren aldetik
garai hartako testuren bat baze-
goen ere, azpimarratu beharre-
koa da batera, edo ia batera, hogeitaz
gutun aurkitu izana, guztiak eus-
karaz idatziak eta zelatariena be-
zalako gaia lantzen dutela. Sa-
trustegik erran duenez, Siman-
casko artxibategia hain handia
izanik, «baliteke testu gehiago
aurkitzea, baina bilaketa zaila
da».

Gazteendako Zokoa



Nafarroako taldekako txapelketaren laugarren jardunaldiko partida, 1992. go azaroaren 7an jokatu.

Antonio Lisarri (Alde Zaharra), Santiago Carasusanen (Anaitasuna) aurka.

1) e4, Zf6; 2) e5, Zd5; 3) d4, d6; 4) c4, Zb6; 5) d6, c-d6.

Irekiera lotsagabea burutu dute txuriek. Damaren peoia, ondorioz, nolabaiteko isolamenduan geratu da. Puntu ahula bihurtuko da.

6) Zc3, g6; 7) Ae3, Ag7; 8) Zf3, 0-0; 9) Gc1, Ag4; 10) h3, Af3; 11) Df3, Zc6; 12) Dd1, d5.

Txuriaren damaren peoi hori presio gero eta handiagoak jasaten ari da.

13) c5, Zc4; 14) Ac4.

Interesgarria da: 14) b3, Ze3; 15) e3, e5; 16) e5, Dh4 xa. Aukera handiak lituzkete beltzek.

14) ... c4; 15) Ze2, Da5 xa; 16) Ad2, Da2. Presioaren fruitua iritsi da: Peoi bat gehiago dute beltzek.

17) Ac3, fG-d8; 18) 0-0, Db3; 19) Dd2, Ze5; 20) De3, Zd3. Zaldia toki onean kokatu dela nabarmendu behar da. Zaldiaren peoia, ordea, txuriaren ahulezia berria dugu.

21) Ga1, Gd7; 22) Ga5, b6; 23) De4, aG-d8; 24) Ga3, Db5; 25) b6, b6; 26) Ga8.

Ikus koadroa. Beltzek hotz jokatuko dute, burua galdu gabe. Bi gazteluek, damak, eta alfalak presta dezaketen konbinazioaren aurrean.

26) ... h6; 27) fG-a1, Eh7; 28) Gd8, Gd8; 29) De7. Txuriek berreskuratu dute peoia, eta erasorako aukera dutela ematen du. Baina beltzak lasai daude, damaren aldea beren menpean baitago.

29) ... De8; 30) Ga7, b5; 31) d5, De7; 32) Ge7, b4; 33) Gf7: Alfalak aldatzea ere ez zien ezer konpontzen.

33) ... c3; 34) Zc3, Eg8; 35) Gb7. Hemen, txuriek etsi zuten. Arriskuari erdian hoztasunez jokatzen jakin zuten beltzek.

XABIER DE MIGUEL

Arratsaldeko bostak ziren eta Juantxok ez zekien zer egin. Juantxo oso mutil lasai eta jatorra da. Baserri txiki batean bizi da, bere guraso eta anai batekin. Bere anaia bera baino handiago eta indartsuagoa da, baina egun hartan gaixorik zegoen, beraz, berak joan behar zuen egurra moztera. Bere gogaitasunari utzi, aizkora hartu, eta mendirantz abiatu zitzaigun gure Juantxo.

Mendirako bidea nahiko gorrora da igotzerakoan, baina ez jeisterakoan. Dena den, ahalegiak egiteak pena merezi zuen. Mendian zehar zegoen lasaitasunari bere izaerarekin bat zetorren, eta eroso-eroso sentitzen zen mendiaran natur liluragarriaz inguratutik.

Ordu pare batez egur egin ondoren, aire freskoa hartzeko gelditu zen zuhaitz baten azpian.

— A, zer polita den natura! — esan zuen Juantxok bere baitan, eta ahots barregarri batek zera erantzun zion:

— Nola? Zer esan duk? Hau astakeria!

Juantxo zutitu egin zen eta bere ingurura begiratu zuen harrituta.

— Hemen niagok, hi!

Juantxok behera jaitsi zuen begirada eta inurri bat bere hankatik igotzen ikusi zuen. Eskuarekin hartu eta begien aurrean jarri zuen. Inurri hori ez zen berak beti pentsatu zuen inurrien modukoa. Hura besteak baino handiago zen eta okupazio ikurraren tatuai bat bere ezker besoan zerraman. Bi aldiz pentsatu gabe zera galdetu zion Juantxok:

— Zeu al zara erantzun naue-na?


— Bai, neu izan nauk!

— Eta zergatik ez zaude naturarekin konforme?

— Ba begira, txo. Orain dela hilabete bat barraskilo nazkante batzuk gure lurraldetara etorri ziren eta lokalak kendu zizkiguten, eta orain aterpe eta jatekorik gabe gaude. Entzun?

— Tontakeriarik ez esan, mesedez.

Inurrien iraultza



Juantxok behera jeitsi zuen begirada eta inurri bat bere hankatik igotzen ikusi zuen. Eskuarekin hartu eta begien aurrean jarri zuen. Inurri hori ez zen berak ezagutzen zutuen inurrien modukoa.

— Hoa infernura, txo! Ez al duk ulertzen horrela jarraitzekotan inurriak desagertuko garela?

— Kasu horretan... barka.

— Ondo da, baina ez gelditu hemen, hoa eta zerbait egin!

— Baina zer?

— Asma ezak zerbait, kontxo!

— Beno ba, agur!

— Agur, txo!

Juantxok gau osoa eman zuen

kartelak marrazten eta bihar-munean mendira joan zen. Kartelak jarri, eta ezer ez zela gertatzen ikustean inurriak zera esan zion Juantxo:

— Aizak! Ze demontre egin duk, hemen ez duk ezer gertatzen!

— Itxaron pixka bat...

Ordu pare bat igaro ondoren, Sanferminetako zezenen modura jende mordo bat hara ailegatu zen. Hiru minututan barraskilo bat ere ez zen ikusten inguru haietan.

— Ondo eginda, txo! —esan zuen inurriak— zer demontre idatzi duk karteletan ez zekiat, baina hemendik aurrera lagunak izango gaituk; hika ere mintza nazakek.

— Kuriositatea baldin baduk, tira, tira, irakur itzak kartelak...

Inurria barrezka hasi zen kartelak irakurtzean: 'Karakolada', 'Barraskilo ugari', 'Inguru hauetan, barraskiloak dohainik' eta abar.



Sakana (2)

Beraz badakigu *Sakana* izena sortu baino lehen pertsonalitate handiko hiru eskualde genituela: Burunda, Arañatz eta Arakil. Burundak, izaerarik bereziena duelako, izena ongi kontserbatu du. Eskura nituen plano gehienetan idatzia ikusi dut eta, gainera, berez dagokiona baino leku gehiago hartuz. Beste bi izenak, berriz, makurrak dabilta. *Arañatz* inongo planotan ez da ikusten eta oso liburu gutxitan aurkitzen da. *Arakil* Uharteri itsatsia eta izen bereko udalerriari buruzko aipamenetan. Agian horregatik zenbait idazlek kontrajartzen dute *Burunda* alde batetik eta *Sakana* bestetik.

Sakana aipatu denez sar gaitzen izen honen barrena. Iribarrenek 'Vocabulari Navarro' dio *La Barranca* Irurtzundik Etxarri zabaltzen dela, Etxarri barne, eta hemendik Ziordira *Burunda* dugula. Sakanako biztanleak *barranguño* edo *barranques* esaten zaiola dio. Iribarren definizioarekin bat egiten dute liburu eta plano askok. Hala ere zuzenagoa da esatea, bertakoek nahi duten bezala, *Sakana* eskualde osoa dela. Frogarik argiena Sakanako Mankomunitateak Burundako hiruburuan egoitza duela da.

Baina *Sakana* eta *Barranca*, gaur egun usu erabili arren, izen berriak dira. R. Carasatorrek, *Sakana* hobekien ezagutzen duen pertsona, haatik, ez ditu maite. Berak esan bezala *Barranca* izena XIX. mendearen erdialdeko dokumentu batean ikusi zuen aurreneko aldiz eta, haren ustez, *Barga* hitzaren itzulpen baldres besterik ez zen. Geografia liburuetan 1914ko Altadillen hitzegian ikusi dut nik lehenengo aldiz: *La Barranca* erabiltzen du. Euskaraz Orizerenean ikusi dut. Batean 1931-1936 bitartean idatzitako 'Euskaldunak' liburuan «Aralar» ez arontza *Sakana* da ageri, Ziordi'tik Iruñara makiñabat erri eta beste batean 'Quito-n arrebarekin': «Besterantzean, Burunda ta Sakan-erria...».

Orain argitu beharko genuke zein sortu zen lehenago: *Sakana* ala *Barranca*. Izen berria dela dakigunez eta erdaraz lehenago ikusten delako *Barrancaren* aldeko apostua egin beharko genuke. Baina erdaraz sortutako izen berriari euskarak laster ordaina eman zion eta bertako euskaldunen artean modu naturalean erabiltzen da *Sakana*. Baita erdaraz ere. Gora-geago aipatutako Sakanako Mankomunitatearen erdal izena Mankomunidad de *Sakana* baita.

Laburbilduz, *Sakana* diogunean izen berri batez baliatzen ari gara Burunda, Arañatz eta Arakil izen bakar batean batzeko.

MIKEL BELASKO

Jenero Xumekoak

Saten zuriko gauak (II)

Kabina batetik hots egin nizun. Hortotsaren arrastoak negarrak bezala kristalen behera. Niregana etor zintezan deitu nizun, ahalik eta agudoen, nirekin Imirizalduko ilunabarra ikus zenezan. Zure abotsa urrun-urrun sentitzen nuen, baina goxoxoa. Egon pixka bat, esan zenidan, Evaren soinekoarekin nagoela, banoa pijamaren bila. Baina hori egin beharrean, telefonoa estaliz nik entzun ez nezan, mintzatu zinen zurekin gaua pasatu zuen gizonarekin, zein nik gustora akabatu beharrean zikiratuko bait nuke.

JEREMIAS ERRO

KAZKARROAN

KONTRAPASA

Erantzunak zehaztuz joan ahala, pasa ezazu letra bakoitza dagokion laukira. Beheko taula osatu ondoren Larraunen bilduriko erranairu zahar bat ageriko zaizu.

1. Ikusmenaren organoa
2. Erauzi
3. Zazpi egun
4. Herri hizkeran, zuri
5. Sorbaldako irtenune

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
A									
B									
D									

Bizi Bizian

Aezkoako Ibarrek igandean ospatuko du bere eguna. Hamasei urte dira dagoeneko, Aezkoak jai egun hau ospatzen duela eta beti bertako Kultur Elkarteak antolatu ditu ekitaldi guz-

tiak. Aurten ere, ohizkoa den bezala, egun arrakastatsua iragarri dute antolatzaileek eta era berean, ibarra bera indartzeko egun honek duen helburua azpimarratu dute.

Aezkoako Eguna Abaurrepean

Aezkoako Ibarrek bere eguna ospatuko du igandean. Urtero, irailaren bigarren astea helduta, ibarra osatzen duten bederatzi herrietan jaiak burututa, ospatzen da Aezkoan jai egun hau. Aurten, hamaseigarren edizioa izango da eta Abaurrepea izango da inguruko herritarren kokagune. Aezkoako Eguna bertako Kultur Elkarteak antolatzen du eta bere kide Iñaki Kaminok EGUNKARIARI azaldu dionez, «arrakasta galanta» lortzen du egun honek. Hala eta guztiz ere, «arazo asko» ere badituztela aitortu du Kaminok, batez ere «azpiegitura egokirik» ez dutelako. Gainera, urtero ibarraren herri batean ospatzeak, azpiegituraren arazoa zaildu egiten du, bere ustez. Bestalde, egun honen helburu nagusia ibarreko biztanleen artean «batasuna» sortzea dela adierazi du.

Aezkoako Eguna igandean bada ere, bertan, dagoeneko sumatzen da jai giroa eta, hain zuzen ere, joan den astean, Aezkoak nafarroako historian izan duen garrantziari buruzko saioa egon zen. Baita, klarinete eta biolin musika ere. Larunbat honetan ere, afaria egongo da gauean eta ondoren, Zinurri Gorriak taldearekin gaupasa.

Berez, Aezkoako Egunaren egitaraua igandean hasiko da, goizeko 9etan. Ordu honetan diena egongo da inguruetan barna txistulari eta gaiteroekin. Ondoren, 10etan, gazta txapelketa izango da, hain zuzen ere, bertakoak da gazta zaharren txapelketa bakarra. Bertan parte hartzeko, Erronkaritik, Garazitik, Orreagatik, Zuberoatik hurbilduko da jendea, bertakoez gain, noski. Gainera, eskulangintza erakusketa egongo da ikusgai 10etatik



Aezkoako emakumeak penitentzia egiten.

Nekazaritza, abelgorria, gazta, basogintza eta ingurugiroa dira protagonista.

aurrera ere; erloju konpontzaileak, musika tresnagileak, zura, egurra, harrigileak, makilariak,

kaikugileak, talogileak, eta abar, denak ariko dira bertan lanean euren produktuak erakusteko asmoz. Goizeko 11.30etan meza ospatuko da eta ordu bata aldera ekitaldi nagusiari emango zaio hasiera.

Aurten, Aezkoako egunaren protagonista nagusia Irati eta Pirinioetako produktuen kalitatea izango da, beti ere, hauen maila

Intsumisioak ere bere lekua izango du Aezkoako Egunean

handia ezagutarazteko asmoz. Hau dela eta, besteak beste, Baionako Merkataritza Ganba-

rako ordezkari bat egongo omen da Aezkoako Egunaren ospakizunetan. Produktu hauen artean, batez ere, nekazaritza, abelgorria, gazta, basogintza eta ingurugiroa azpimarratu nahi dituzte bertakoek.

Jai eguna izateaz gain, Aezkoako Egunak egungo gizartearen garrantzitsuak diren arazo eta gaien islada izan nahi du. Honela, aurtengo ekitaldi nagusien barne, intsumisioak ere bere lekua izango du.

Hain zuzen ere, bertako hiru gazte kartzelan daude intsumiso izateagatik. Hau dela eta, gai honi buruzko hormirudiek eta kartelek apainduko dituzte Abaurrepeko kaleak.

Eguerdiko ordubiak eta laurdenetan, bertako bi biztanleri egingo diete omenaldia, Mizkiritzeko Markos Saraguetari, goilare egilea, eta Garraldako Joxe Rotari, zura eta harria lantzen dituen. Ondoren, ordubi t'erdia aldera, bazkaria, zikiro jatea izango da eta honen amaieran, gazta txapelketaren sariak banatuko dituzte. Jon Bergaretxek, Erramun Martikorenak eta Irigoien anaiek ere, bazkalondan beraien saioa eskainiko dute.

Haurrek ere, zer ikustekorik izango dute eta arratsaldeko 17.30etan Trokolo taldearen ikuskizuna izango dute. Gauean berriz, Adartz taldeak kontzertua eskainiko du. Ekitaldi hauetaz gain, egun guztian zehar Basaburuako txarangak alaituko ditu kaleak, soinu jole gazteekin batera.

Aezkoako Eguna, beraz, ez da jai egun soil, horrekin batera, ibarra indartzea baitu helburu. Gainera, Iñaki Kaminok adierazi duenez, biztanleen artean «ibarra izatearen sena» bultzatzea da egun honen xedea.

Erreforma garaian jatorria

■ Aezkoako Eguna orain dela hamasei urte ospatzen bada, bere jatorria ezagutzeko denboran atzerago egin behar dugu, hain zuzen ere, Erreforma garaia arte. Garai hartan, Iñaki Kaminok azaltzen duenez, «nahiko truke txarra egin zuen ibarrak, Orbaitzetako arma olaren truke, bere basoak Estatuaren esku geratu baitziren». Honen aurrean, Erreforma garaian, Markos Bizkaia eta Garaikoetxea mendiak berreskuratzen saiatu ziren. Eta

mugimendu honen inguruan, hain zuzen ere, Aezkoako Kultur Elkarteak eratu zen. Garai hartan mendiak berreskuratzea lortu bazuten, gaur egun elkarte honetako kide direnek «abertzaleak eta aurrerazaleak» Kaminoren hitzetan - batasun kontzientzia sortzeko helburua dute. Kideen abertzaletasuna dela eta, Aezkoako Egunak ere «kutsu erreibindikatiboa» du Kaminok erraten duenez eta ikurrina ezartzeaz gain hizkuntzaren gorapamena

ere egiten dute egunean zehar. Honek ere, arazoak sortu ditu airtortzen duenez, «mundu guztiak ez baitu berdin pentsatzen». Hau dela eta, jende askok Aezkoako Eguna Ibarreko Juntak antolatu dezan nahi du, Iñaki Kaminok EGUNKARIARI jakinarazi dionez; hala ere, Ibarreko Juntak ez du erantzukizun hori bere gain hartu nahi izan, eta milioi erdiko dirulaguntza ematen badu ere, «lan guztia Aezkoako Kultur Elkarteak egiten du».



Aetzen janzkerak dotoreak dira oso.

Esperanza Abad

.....aktoresa

Guztiok dugu ahotsa, baina gu-
txik lortzen dute haien ahotsaz
bizitzea. Maria Esperanza
Abad mirari hori lortu du. Aktoresa eta
abeslaria, urte franko eman ditu ahotsa-
ren nondik norakoak aztertzen —esta-
tuan eta atzerrian— eta egun, musika

garaikidean maisu izateaz gain, leku
anitzetan ahotsaren erabilpenari bu-
ruzko ikastaroak ematen ditu. Nafa-
rroako Antzerki Eskolan 'Ahotsa eta
haren sormen bideak' izeneko eman du
aste honetan, eskolako aurtengo azken
uda ikastaroa hain zuzen ere.

Guztiok dugu ahotsa»

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑEA

EGUNKARIA.— Zure irudikoz
zeinentzat izan daiteke probe-
txugarri ahotsa ongi erabiltzea?
Zeintzuei gomendatuko zenieke
zure ikastaro bat egitea?

MARIA ESPERANZA ABAD.—

Guztiok dugu ahotsa, eta guztiok
badugu ahotsaren bitartez —bar-
nean ditugun hotsen bitartez, ale-
gia— gauzak adierazteko aukera.
Beraz, guztientzat izan daiteke
probetxugarri ahotsa ongi erabil-
tzen jakitea, guztiok ahotsa ongi
erabiltzen jakin beharko genuke.
Iruñean eman dudana ikastaroan,
esate baterako, lanbide ezberdi-
netako jendearekin aritu naiz.
Aktore, irakasle, ikasle, langa-
betu, kantari, kazetari... era guz-
tietako ikasleak izan ditut. Nik
edonori gomendatuko nioke
ikastaroa egitea. Dena den agian
gomendagarriagoa da ahotsa-
ren lan egiten dutenentzat, akto-
reak, kantariak, ikasleak, irati-
gintzan aritzen direnak, azken fi-
nean guztiok sormen lana egiten
dugu. Jendaurrean sentimenduak
azaltzen ditugu, eta ahotsa era-
biltzen jakiteak asko laguntzen
du azalpen horretan.

EGUNKARIA.— Funtsean, zer
irakatsi nahi izan diezu zure
ikasleei?

ABAD.— Haiek soinua igortzeko
zuten gaitasuna areagotzen saia-
tu naiz, gaitasun hori handituz
gizakia bera handitzen delako.
Ikasleak ikastaroaren amaieran
gauzak egiteko modu jakin bat
—ohizkoa hain zuzen ere—
abiapuntutzat hartuz, beraien
kreatibitatearen bitartez gauzak
egiteko beste modu bat sortzeko
gai izatea nire helburu nagusia
izan da, soinua sortzeko bide
berriak asmatzeko gai izatea ale-
gia.



Abadek urte asko eman ditu ahotsaren nondik norakoak aztertzen.

OSKAR

EGUNKARIA.— Nola aurkitu di-
tzakete bide berri horiek?

ABAD.— Erlajazioa, fonema
igorpena, eta erresonantzia.
erantzuna hiru ardatz horietan
datza. Ahotsak XX. mendean
egin duena aztertu dugu, dadais-
tek, futuristek, surrealistek eta
beste hainbat jendeak egindakoa.
Guzti horiek poesia fonetikoa eta
irudi poesia eginez nolabait XIX.
mendeko mugak hautsi zituzten.
Teknika ongi ezagutuz gero, eta
aipatutakoek egindako lana eza-
gutuz, igorpen bide berriak za-
baldu daitezke.

EGUNKARIA.— Zein da ezagutu
beharreko teknika hori?

ABAD.— Erlajazioaren alderdi
guztiak aztertu ditugu, erlajazio

aktiboa eta pasiboa. Gero ahozko
tresna aztertu dugu. Hasteko lo-
kalizazio teknikak landu ditugu,
ahoa erabiltzen ikasteko. Ikus-
puntu fisiko batetik egin dugu
hori arnasketa eta soinu igorpena
landuz, baina horretaz gain bur-
muina ere landu dugu, eta fonema
igorpenaren prozesu sikikoa az-
tertu dugu, ideia, irudia eta mu-
gimendua. Prozesu hori oso in-
teregarria iruditzen zait. Proze-
sua aztertu eta ulertzen badugu,
edozein fonema era ezberdinetan
ahozkatu dezakegula ikus baite-
zakegu. Hortik abiatzen da sor-
men lana. Modu horretan guk gu-
re barruan duguna ateratzeko du-
gu, eta jarraian ateratakoa orde-
natzen dugu. Azken finean aho-

tsa tresna bezala aztertzen dugu,
eta bestalde ahotsa sujeto bezala,
gizaseme bezala. Bi ikuspuntu
horiek elkar erlazionatzen dire-
nean sormen lana egiteko auke-
rak areagotzen dira.

EGUNKARIA.— Aktoresa eta
kantari lanetan ibilitakoa, azken
aldi honetan gehien bat abeslari
izateari heldu diozu, eta ikerke-
taren arloan murgildu zara. Egun
zertan zabilta?

ABAD.— Egun nere bizitza osoan
zehar egin dudana lanaren fruituak
biltzen ari naiz. Eszenatokian eta
ikastaroetan egin dudana lanaren
fruituak. Informazio kopurua oso
handia da, eta asko kostatzen ari
zait material guztia biltzea. Bes-
talde, hainbat unibertsitatetan,

abesbatzetan, eta beste zenbait
tokitan —Nafarroako Antzerki
Eskolan adibidez— ikastaroak
ematen ari naiz. Bestalde, ahotsa
eta mugimendua elkarlotzen
saiatzen ari naiz, ahotsa eta dan-
tza alegia. Nire kontzertuak oso
bereziak dira orain. Hitzaldia,
inprobisazioa eta beste hainbat
gauza elkartzen ditut, eta nahas-
keta horren ondorioak dira nere
kontzertuak.

Guztiok badugu
ahotsaren bitartez
sentimenduak azal-
tzeko gaitasuna. Be-
raz, guztientzat da
probetxugarri aho-
tsa ongi erabiltzen
jakitea».

EGUNKARIA.— Jakin dugunez,
oso gustura ibili zara Nafarroako
Antzerki Eskolan.

ABAD.— Bai. Eskolan lan egiten
ari den jendeak txunditurik utzi
nau. Hamaika ikastaro antolatzen
ari dira, eta lan pila bat egiten ari
dira inoren laguntzarik gabe. Is-
torio benetan jatorria dela irudi-
tzen zait. Gaur egun oso zaila da
horrelako jendea topatzea. Egun
dirua da gauza guztien oinarria,
eta benetan hunkigarria da horre-
lako jendea topatzea. Bestalde,
betidanik asko gustatu izan zait
Iruñera etortzea, hemen bizi baita
Jose Luis Etzea de Oltza, ahotsa-
ren erabilpenean lehen urratsak
ematen lagundu ninduen gizona
hain zuzen ere. Bera izan da nire
maiusurik handiena.

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak



JARRAITZEKO...